

Donostia, 2017ko uztailaren 14a

IDAZKARITZA NAGUSIARI

MORLANGO BIDEGORRIAREN GAINEKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau dakar, Mugikortasuneko eta Garraioetako zinegotzi ordezkari Pilar Aranari GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAK (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) hil honetan izan duen bileran Morlansgo bidegorria ixtearen aurrean beste irtenbide batzuk izatearen gainean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Morlans-Aieteko igogailua egiteko obrak hasi direla eta, itxi egin dute Amara eta Antigua auzoak oso minutu gutxitan lotzeko bidea ematen duen bidegorria. Obrak, hasiera batean, bederatzi hilabete iraungo du, baina esan dute litekeena dela obra amaitu baino lehen ere izatea bidegorria berriz irekitzeko modua.

Badakit segurtasuna dela beste ezer baino lehen, baina ezinbestekoa da beste aukera batzuk ere aztertzea; izan ere, Antigua eta Morlans arteko bide hori jende askok erabiltzen du egunero lanera edo ikastetxera joateko. Bide horrek, izan ere, aukera ematen du Amara eta Ibaeta (Unibertsitateko campusa) zuzenean lotzeko, Aiete auzorainoko malda gogorra igo beharrik izan gabe.

Hil honetan izan dugun batzordean, zinegotzi eskuordedunak esan zuen saiatu zirela obrak egin bitartean ere bidegorria irekita izateko modua izaten. Esan zuen, orobat, ikusi zutela ez zuela merezi ordezeko bide bat jartzetik, eta, hala, obrak ahalik eta azkarren egiten saiatu zirela, baina, azkenean, bederatzi hilabete pasatuko dituztela obrak egiten.

Horiek horrela direla, gogorazi nahi dugu oso garraio bide garrantzitsua dela bizikletarena Donostian, eta oraingo gobernuaren helburuetako bat, gobernu programan jartzen duenez, horixe

dela: bizikleta garraio bide bat izatea babestea, handitzea eta sustatzea, bizikletan ibiltzen diren pertsonentzako neurri egokiak jarrita.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari irtenbide tekniko bat bilatzeko, Morlansgo bidegorria Amara-Aieteko igogailua egin bitartean ere erabiltzeko modua emango duena.

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia